

Erramu Igandea Jaungoikoaren Pasioan - A

EBANJELIOA

Jesukristo Jaunaren Pasioa.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoen liburutik 26, 14-27, 66

Zenbat agintzen didazue Jesus zuen eskuetara emateagatik?

C. Orduan, Hamabietako batek, Judas Iskariote deituak, apaizburuengana Joan eta esan zien:

D. «Zenbat agintzen didazue Jesus zuen eskuetara emateagatik?»

C. Zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zizkioten. Ordutik, Jesus haien eskuetara emateko egokiera bila hasi zen Judas.

Non egin behar ditugu Pazko-afarirako prestaketak?

C. Legamia gabeko Ogien Jaiko lehen egunean, ikasleak hurbildu ziren Jesusengana, galdetuz:

D. –Non egin behar ditugu Pazko-afarirako prestaketak?

C. Hark esan zien:

+. –Zoazte hirira, halakoaren etxera, eta esaiozue: «Maisuak dio hurbil dela bere ordua, eta zuenean ospatu nahi duela Pazkoa bere ikasleekin».

C. Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta Pazko-afaria prestatu zuten.

Zuetako batek saldu egingo nau.

C. Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin. Afaltzen ari zirela, Jesusek esan zuen:

+. –Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau.

C. Haiek, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka:

D. –Nik ote, Jauna?

C. Hark erantzun zuen:

+. –Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau.

Gizonaren Semea badoa, bai, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz!

C. Judasek, salduko zuenak, galdetu zion:

D. –Ni ote naiz hori, Maisu?

C. Jesusek erantzun zion:

+. –Zeuk esan duzu.

Hau nire gorputza da. Hau nire gorputza da.

C. Afaltzen ari zirela, ogia hartu zuen Jesusek eta, bedeinkazioa esan ondoren, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez:

+ «Hartzazue eta jan, hau nire gorputza da».

C. Gero, kopa hartu eta, esker oneko otoitza egin ondoren, eman egin zien, esanez:

+ «Edan guztiok honetatik, hau nire odola baita, Jainkoarekiko ituna berrituko duena, bekatuak barkatzeko guztien alde isuria.

Egia esan, hemendik aurrera ez dut gehiago ardorik edango, neure Aitaren erreinuan zuekin ardo berria edan arte».

C. Gorazarreak kantatu ondoren, Oliamendira abiatu ziren.

Joko dut artzaina eta ardiak sakabanatu egingo dira.

C. Jesusek esan zien:

+ «Zuek guztiok niregan duzuen sinesmenak huts egingo du gaur gauean, honela baitago idatzia Liburu Santuetan: *Joko dut artzaina eta ardiak sakabanatu egingo dira*. Baina piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara».

C. Pedrok esan zion:

D. –Zureganako beste guztien sinesmenak huts egiten badu ere, nireak inola ere ez.

C. Jesusek erantzun:

+ –Benetan diotsut: Gaur gauean, oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu.

C. Pedrok esan zion:

D. –Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut inola ere ukatuko.

C. Eta gauza bera zioten ikasle guztiek.

Tristura eta larria sentitzen hasi zen.

C. Jesus bere ikasleekin Getsemani zeritzan landa batera iritsi zen, eta esan zien:

+ «Zaudete hemen, ni hara otoitz egitera noan bitartean».

C. Pedro eta Zebedeoren bi semeak eraman zituen berekin. Tristura eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien:

+ «Hiltzeko zorian nago tristuraz. Gelditu hemen eta zaudete erne nirekin batera».

C. Eta aurreraxeago joanik, ahuspez erori zen eta otoitz egin zuen, esanez:

+ «Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala».

C. Ikasleengana joan eta lotan aurkitu zituen. Pedrori esan zion:

+ «Beraz, ordubete ere ezin izan zarete nirekin erne egon? Zaudete erne eta egizue otoitz, tentaldian ez erortzeko: gogoz kartsu izan arren, ahula baita gizakia».

C. Bigarren aldiz aldendu eta otoitz egin zuen, esanez:

+ «Ene Aita, edari samin hau derrigorrez edan behar badut, egin bedi zure nahia».

C. Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten. Haiek utzirik, berriz ere aldendu eta hirugarren aldiz otoitz egin zuen, lehengo hitzak berriro esanez. Ondoren, ikasleengana joan eta esan zien:

+ «Egin lo eta hartu atseden! Hara, gainean da ordua, Gizonaren Semea bekatarien eskuetara emana izateko. Jaiki, goazen, hemen da salduko nauena!»

Jesusengana hurbildurik, heldu eta atxilotu egin zuten.

C. Jesus hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabietako bat; gizon-multzo handi bat zetorren harekin, ezpata eta makilak eskuetan, apaizburu eta herriko zaharrek bidalirik.

Saltzaileak seinale hau jarria zion:

D. «Nik musu emango diodana, horixe da, atxilot ezazue».

C. Berehala, Jesusengana hurbildu eta esan zion:

D. «Agur, Maisu!»

C. Eta musu eman zion.

Jesusek esan zion:

+ «Adiskide, egizu egitekoa!»

C. Orduan, besteek, Jesusengana hurbildurik, heldu eta atxilotu egin zuten. Jesusekin zeudenetako batek ezpata atera, morroia jo eta belarria moztu zion.

Jesusek esan zion:

+ «Itzuli ezpata hori bere tokira, zeren ezpataz ari dena ezpataz hilko baita.

Ala uste al duzu ezin diodala Aitari dei egin? Hamabi aingeru-talde eta gehiago jarriko lizkidake berehala ondoan. Baina nola beteko lirateke, orduan, Liburu Santuak, honela gertatu behar duela baitiote?»

C. Une hartan, Jesusek jendeari esan zion:

+ «Ezpataz eta makilaz etorri zarete, lapur baten bila bezala, ni harrapatzera! Egunero esertzen nintzen tenpluan irakasten, eta ez ninduzuen atxilotu.»

C. Baina hau guztia profetek idatzia bete dadin gertatu da.

Orduan, ikasle guztiek Jesus utzi eta ihes egin zuten.

Gizonaren Semea Ahalguztidunaren eskuinean eserita ikusiko duzue.

C. Jesus atxilotu zutenek Kaifas apaiz nagusiaren etxera eraman zuten, han bilduak baitziren lege-maisu eta herriko zaharrak.

Pedro, Jesusi urrutitik jarraituz, apaiz nagusiaren jauregiraino joan eta, barrura sarturik, morroiekin eseri zen, hura guztia zertan amaitzen zen ikusteko.

Apaizburuak eta Biltzar Nagusi osoa Jesusen kontra gezurrezko lekukotasun bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko; baina ez zuten aurkitu, gezurrezko lekuko asko azaldu arren.

Azkenean, bi azaldu ziren, esanez:

O. «Honek esana du: Jainkoaren santutegia desegin dezaket eta hiru egunetan berreraiki».

C. Orduan, apaiz nagusiak zutitu eta galdetu zion:

O. –Ez al diezu deus erantzun behar zure kontra ateratzen dituztenei?

C. Baina Jesus isilik. Apaiz nagusiak esan zion:

O. –Jainko biziarengatik eskatzen dizut: Esaguzu zinez zu al zaren Mesias, Jainkoaren Semea.

C. Jesusek erantzun:

+ . –Zeuk esan duzu. Eta gehiago diotsuet: Oraindanik *Gizonaren Semea Ahalguztidunaren eskuinean eserita eta zeruko hodei gainean etortzen* ikusiko duzue.

C. Orduan, apaiz nagusiak bere jantziak urratu zituen eta esan:

O. –Biraoa esan du. Ba ote dugu lekuko beharrik? Zeuek entzun duzue biraoa. Zer deritzozue?

C. Haiek erantzun:

M. –Heriotza merezi du.

C. Orduan, aurpegira listua bota eta ukabilkadak eman zizkieten; beste batzuek masailekoak ematen zizkieten, esanez:

M. «Asma ezak, Mesias, nork jo hau?»

Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu.

C. Pedro kanpoan eseria zegoen, patioan; neskame batek ondoratu eta esan zion:

O. –Hi ere Jesus galilearrarekin bizi hintzen.

C. Baina hark guztien aurrean ukatu zuen:

D. –Ez zekinat zertaz ari haizen.

C. Ate ondora irten zen, eta beste neskame batek ikusi eta han zeudenei esan zion:

O. –Jesus nazaretarrarekin ibilia da hau.

C. Pedrok berriro ukatu zuen, zin eginez:

D. –Ez dut ezagutzen gizon hori.

C. Geroxeago, han zeudenek, hurbildurik, Pedrori esan zioten:

O. –Bai, hi ere horietakoa haiz, noski; hizkeran ezagun duk.

C. Orduan, Pedro biraoka eta maldizioka hasi zen:

D. –Ez dut ezagutzen gizon hori.

C. Une hartan oilarrak jo zuen. Gogoratu zitzaion Pedrori Jesusek esana: «Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu», eta, kanpora irtenik, negarrari eman zion saminki.

Jesus Pilato gobernariaren eskuetara eman zuten.

C. Eguna argitu zuenean, apaizburu eta herriko zahar guztiek bildu eta Jesusen kontrako erabakia hartu zuten, heriotzara kondenatzeko. Gero, lotuta eramán zuten eta Pilato gobernariaren eskuetara eman.

Ez da zilegi diru hau tenpluko dirutegira botatzea, odoletan zikindua baita.

C. Judas saltzaileak, Jesus kondenatua zutela ikustean, damu izan zuen eta zilarrezko hogeita hamar txanponak apaizburu eta herriko zaharrei itzuli zizkien, esanez:

D. –Oker egin dut errugabea heriotzara emanez.

C. Baina haiek erantzun zioten:

O. –Eta guri zer? Hor konpon!

C. Orduan, dirua tenpluan jaurtirik, alde egin eta bere burua urkatu zuen. Apaizburuek dirua jaso eta esan zuten:

- O. «Ez da zilegi diru hau tenpluko dirutegira botatzea, odoletan zikindua baita».
- C. Eta elkarren artean erabaki ondoren, «Eltzegilearen soroa» erosi zuten diru harekin, kanpotarren hilerri izan zedin. Horregatik, gaur egun ere «Odol-soro» deitzen zaio toki hari. Honela bete zen Jeremias profetak esana: *Eta hartu zituzten zilarrezko hogeita hamar txanponak; hori izan zen israeldarrek ezarri zioten salneurria. Eta eltzegilearen soroa erosteko erabili zituzten, Jaunak agindu zidan bezala.*

Zu al zara juduen erregea?

- C. Jesus gobernariaren aurrean aurkeztu zuten. Gobernariak galdetu zion:
- O. –Zu al zara juduen erregea?
- C. Jesusek erantzun zion:
- +. –Zeuk diozu.
- C. Apaizburuek eta zaharrek salaketa asko egiten zuten haren aurka, baina hark ez zuen ezer erantzuten.
- Pilatok esan zion:
- O. –Ez al duzu entzuten zenbat gauza ateratzen duten zure kontra?
- C. Eta ez baitzion salakuntza bati ere erantzunik eman, erabat harriturik gelditu zen gobernaria.
- Pazko-jaiero preso bat askatu ohi zuen gobernariak, herriak nahi zuena. Bazen orduan preso sonatu bat, Barrabas zeritzana. Beraz, jendea bildu zenean, Pilatok galdetu zien:
- O. –Zein nahi duzue askatzea, Barrabas ala Jesus, Mesias delakoa?
- C. Ongi baitzekien bekaizkeriaz emana ziotela Jesus.
- Epaimahaian eseria zegoela, emazteak mandatu hau bidali zion:
- O. «Ez zaitezela errugabe horrekin sar! Askok sufritu dut bart ametsetan hori dela eta».
- C. Baina apaizburuek eta zaharrek jendea berotu zuten Barrabasen askatasuna eta Jesusen heriotza eska zitzaizkien. Gobernariak berriro galdetu zien:
- O. –Bietako zein nahi duzue askatzea?
- M. –Barrabas – C. erantzun zuten.
- C. Pilatok esan zien:
- O. –Eta zer egin behar dut Jesusekin, Mesias delakoarekin?
- C. Denek erantzun zuten:
- M. –Gurutzean josi!
- C. Eta hark:
- O. –Zer oker egin du, bada?
- C. Haiek, are eta oihu handiagoz:
- M. –Gurutzean josi!
- C. Guztia alferrik zela eta, gainera, iskanbila sortzera zihoala ikusirik, Pilatok ura hartu eta eskuak garbitu zituen jendearen aurrean, esanez:
- O. –Ez naiz gizon honen heriotzaren erantzule! Zeuek ikusi!
- C. Herri osoak erantzun zuen:
- M. –Geu eta gure ondorengoak egiten gara horren heriotzaren erantzule!

C. Orduan, Barrabas askatu zien eta Jesus, zigorkarazi ondoren, haien eskuetara eman zuen, gurutziltza zezaten.

Agur, juduen erregea!

C. Gobernariaren soldaduek Jesus jauregira eraman zuten eta gudari-taldeko denak bildu zituzten haren inguruan. Soinekoak erantzi zizkieten eta purpurazko kapa batez jantzi zuten. Arantzaz egindako koroa ezarri zioten buruan eta kanabera eskuan, eta, aurrean belaunikaturik, iseka egin zioten esanez:

M. «Agur, juduen erregea!»

C. Listua botatzen zioten eta, kanabera kendurik, buruan jotzen zuten. Nahiko iseka egin ondoren, kapa erantzi eta bere soinekoak jarri zizkieten. Gero, gurutzean josteko eraman zuten.

Bi lapur gurutziltzatu zituzten Jesusekin batera.

C. Ateratzean, Zireneko gizon bat aurkitu zuten, Simon zeritzana, eta Jesusen gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota izeneko tokira iritsi zirenean (Golgotak «Burezur» esan nahi du), behazunez nahasiriko ardoa eman zioten edatera. Jesusek dastatu bai, baina ez zuen edan nahi izan. Gurutzean josi ondoren, soldaduek Jesusen jantziak banatu egin zituzten zotz eginez. Eta han gelditu ziren, eserita, zaintzen. Buruaren gainaldean kondenaren arrazoa ipini zuten idatzita: «Hau Jesus da, juduen erregea». Bi lapur gurutziltzatu zituzten Jesusekin batera, bata eskuinean eta bestea ezkerrean.

Jainkoaren Semea baldin bahaiz Jaits hadi gurutzetik!

C. Handik igarotzen zirenek irain egiten zioten Jesusi, buruari eragin eta esanez: M. «Santutegia desegin eta hiru egunetan eraikitzen omen duan horrek, Jainkoaren Semea baldin bahaiz, salba ezak heure burua! Jaits hadi gurutzetik!»

C. Era berean, apaizburu, lege-maisu eta zaharrek ere irri egiten zioten, esanez:

O. «Besteak salbatu ditik, eta bere burua ezin. Israelgo errege omen duk hori; jaits dadila orain gurutzetik, eta sinetsiko diagu berarengan.

Jainkoarengan jarria dik uste ona; libra dezala orain, maite baldin badu; ez zuen, bada, esaten Jainkoaren Semea zela?»

C. Orobat, berarekin gurutzean josiak zeuden lapurrek ere irain egiten zioten.

Eli, Eli, lama sabaktani.

C. Eguerditik hirurak arte ilundu egin zuen lurbira osoan Hirurak inguruan, Jesusek oihu handiz esan zuen:

+. «Eli, Eli, lema sabaktani?» C. (Hau da: +. «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?»).

C. Hau entzutean, bertan zeuden batzuek esan zuten:

M. «Eliasi deika ari da».

C. Eta berehala, haietako batek, lasterka belaki bat hartzera joan, ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion.

Besteek, ordea, zioten:

M. «Egon, ea datorkion Elias salbatzera!»

C. Baina Jesusek, berriro deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.

Denak belaunikatzen dira eta eten bat egiten da.

C. Eta horra, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik beheraino; lurrikara izan zen eta harkaitzak zartatu egin ziren; hilobiak zabaltu eta hilik zeuden santu asko piztu egin ziren: hilobietatik irten eta, Jesus piztu ondoren, hiri santuan sartu ziren eta jende askori agertu zitzaizkion.

Lurrikara eta gertakari guztiok ikustean, erromatar ehuntariak eta harekin Jesus zaintzen zeuden besteek, beldurrak jota, esan zuten:

O. «Zinez, Jainkoaren Semea zen hau!»

C. Baziren han emakume asko ere, urrutitik begira; Jesusi jarraituz Galileatik etorriak ziren, beraren zerbitzari; haien artean, Magdalako Maria, Santiago eta Joseren ama Maria, eta Zebedeoren semeen ama.

Josek. Jesusen gorpua harturik hilobi berri batean ezarri zuen.

C. Ilunabarrean, Jose zeritzan Arimateako gizon aberats bat etorri zen, Jesusen ikaslea. Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu zion. Pilatok emateko agindu zuen. Josek, gorpua harturik, izara garbi batean bildu zuen eta haitzean zulaturiko hilobi berri batean ezarri. Gero, harri handi bat irauliz, hilobiko sarrera itxi eta joan egin zen. Magdalako Maria eta beste Maria hilobi aurrean eserita zeuden.

Badituzue zeuen guardiak. Zoazte, eta zaindu dakizuen modura.

C. Biharamuna larunbata zen. Apaizburuak eta fariseuak Pilatogana bildu ziren elkarrekin, eta esan zioten:

O. –Jauna, gogoratu dugu engainatzaile horrek, artean bizi zelarik, esan zuela: «Hiru egunen buruan piztu egingo naiz».

Agindu ezazu, bada, hirugarren eguna arte hilobia zaintzeko; ez dadila gerta, haren ikasleak gorpua eraman eta gero «Hildakoenartetik piztu da» herriari esanez etortzea. Azken engainu hau lehenengoa baino okerragoa izango litzateke.

C. Pilatok erantzun zien:

O. –Badituzue zeuen guardiak. Zoazte, eta zaindu dakizuen modura.

C. Joan ziren, bada, eta hilobia segurtatu zuten, harria zigilatuz eta guardia ipiniz.

Jaunak esana.

HOMILIA

2017ko apirilaren-9a

EZ ZION EZERK ATZERA EGINARAZI

Joan Bataiatzailea hiltzea ez zen izan ezusteko bat. Judu-herrian oso hedatua zen ideia baten arabera, profetaren zoria ulertezina izatea da, ukatua izatea eta, kasu askotan, heriotzara galdua izatea. Segur aski, oso garaiz barruntatu zuen Jesusek beretzat indarkeriazko azken bat.

Jesus ez zen izan suizida bat, ez zen ibili martiritzaren bila. Ez zuen sekula sufrimendua opa izan, ez beretzat, ez beste inorentzat. Bizitza osoan saiatu zen haren kontra, bai gaixotasunean, bai zuzengabekeria, bai bazterkerian edo etsipenean. «Jainkoaren erreinua eta haren zuzentasuna bilatzea» izan zuen bere asmo guztia: zeruko Aitak gogoko duen mundu duinago eta zoriontsuago baten bilatzeari emanik bizi izan zen.

Pertsekuzioa eta martiritza onartzen baditu, bere seme-alabak sufritzen ikusi nahi ez dituen Jainkoaren asmori leial izateagatik izan da. Horregatik, ez doa heriotzaren bila, baina atzera ere ez du egin. Ez du ihes egin mehatxuen aurrean, ez du aldatu edo leundu bere mezua ere.

Aise ihes egiten ahal zion Jesusek eraila izateari. Aski izango zuen isiltzea eta ez azpimarratzea tenpluan edo erromatar prefektuaren jauregian haserrea eragin zezakeen ezer. Baina ez. Bere bideari jarraitu zion. Nahiago izan zuen heriotza bere kontzientziari saldukeria egitea baino, Jainkoaren, bere Aitaren, asmori desleial izatea baino.

Segurtasun-faltaren, gatazkaren eta salaketen giroan bizitzen ikasi zuen. Eguna joan eguna etorri, bere gogoia bere egitekoari estuago lotuz joan zen, eta bere mezua argi eta garbi hots egiten. Mezu hura zabaltzera ausartu zen, ez Galileako herrixka baztertueta bakarrik, baita tenpluaren ingurune arriskutsuan ere. Ez zion ezerk atzera eginarazi.

Jainkoari leial zelako hil zuten, harengan ezarria baitzuen beti bere konfiantza. Guztiei onarpena eskaintzen jarraitu zuen, baita bekatariei eta desiraezin zirenei ere. Berari uko egitera iristen badira, «baztertu» bat bezala hilko da, baina bizitza osoan zer izan den baietsiko du heriotza horrek: inor zapuzten ez duen eta bere barkazioa inori ukatzen ez dion Jainkoagan izan duen erabateko konfiantza du.

Jainkoaren eta haren erreinuaren bila jarraituko du, bat eginez pobreenak eta mespretxatuenak direnekin. Egun batean gurutzean, esklaboei dagokien tormentuan, hiltzen badute, pobre eta mespretxatu bat bezala hilko da; baina betiko zigilatuko du bere heriotzaz Jainkoagan duen konfiantza, hark salbazioa opa baitie gizon-emakume guztiei esklabotza guztitik.

Jesusengan, haren jarraitzaileok errealitatearen azken Misterioa aurkitu dugu, gizakiari dion maitasunean eta erabateko eskaintzan haragitua den Misterioa. Gurutziltzatua izan den horren maitasunean Jainkoa bera ageri zaigu, sufritzen ari diren guztiekin bat eginik,

zuzengabekeria guztien kontra oihuka eta aldi guztietako borraroei barkatzen. Jainko honengan sinetsi daiteke edo ez, baina ezin egin zaio isekarik. Honengan dugu kristauok geure konfiantza. Ezerk ez dio atzera eragingo bere seme-alabak salbatzeko eginahalean.

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

HOMILIA

2014ko apirilaren 13a

EZ ZION EZERK ATZERA EGINARAZI

(2016-2017ko A zikloaren homilia ikusi).

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

HOMILIA

2011ko apirilaren 17a

ESKANDALUA ETA EROKERIA

Lehen kristauak jakinaren gainean ziren. Jainko gurutziltzatuagan sinestea eskandalutzat eta erokeriatzat har zitekeen soilik. Zeini eman zion buruak Jainkoaz halako gauza zentzugabea eta izugarria esateko? Erlijio bakar bat ere ez zen ausartu sekula halako zerbait aitortzera.

Zinez, agintari politikoek eta erlijiosoek Golgotan gurutziltzatu eta hiltzeraino torturatu zuten harengan hau dakusagu lehenik eta behin: gaitzaren indar hondatzailea, gorrotoaren krudeltasuna eta gezurraren fanatismoa. Baina, hain juxtu, biktima horrengan horixe dakusagu Jesusen jarraitzaileok: aldi guztietako biktima guztiekin identifikatu den Jainkoa.

Botere dominatzaile guztitik, edertasun estetiko guztitik, arrakasta politiko guztitik eta koro erlijioso guztitik erantzirik ageri da Jainkoa, bere misterioaren sakonenean eta ulertezinean: maitasun bezala eta soilik maitasun bezala. Ez da izan inoiz, ez izango ere, axolagabe, apatiko eta arduragabe den Jainkorik. Gurekin sufritzen duen Jainkoa da, gure sufrimena sufritzen duena, gu hiltzean hiltzen dena.

Jainko gurutziltzatu hau ez da Jainko boteretsua eta kontrolatzailea; ez da bere seme-alabak nola mendean hartu dabilena; beti bere aintzaren eta ohorearen bila dabilena. Jainko umila da eta jasankorra; gizakiaren askatasuna azkeneraino errespetatzen

du, haren maitasunaz guk behin eta berriz abusatu arren. Nahiago du bere sorkarien biktima izan haien borrero baino.

Jainko gurutziltzatu hau ez da Jainko zorrotz, erresumindu eta mendekaria, gaur oraino fededun askoren bihotza aztoratzen duen hura. Gurutzetik, Jainkoak ez dio erantzuten gaitzari gaitz eginez. «Kristogan Jainkoa da, ez gizakiaren hutsegiteak kontuan hartuz, baizik mundua berekin adiskidetuz» (2 Korintoarrei 5,19). Gu merezimenduez, erruez eta lortutako eskubideez mintzo garen bitartean, Jainkoa guztioi abegi ona eskaintzen ari zaigu, bere maitasun neurtezinaz eta bere barkamenaz.

Jainko gurutziltzatu hau biktima errugabe guztietan ageri zaigu gaur egun. Kalbario-mendiko gurutzean dago; baita errugabeenak sufritzen eta hiltzen ari diren guztiengan ere: gosean diren haurrengan eta tratatu txarra jasaten duten emakumeengan, boterearen borreroek torturatzen dituzten guztiengan, gure ongizateak esplotatzen dituenengan, gure erlijioak ahazten dituenengan.

Jainko gurutziltzatu ospatzen jarraitzen dugu kristauok, Jainkoak gizadiari dion «maitasun zoroa» ez ahazteko eta bizirik eusteko gurutziltzatu guztien oroitzapenari. Eskandalua da eta erokeria. Halaz guztiz, Jesusi jarraitzen eta haren heriotzak bere baitan duen misterio salbatzailean sinesten dugunontzat indarra da: gure esperantzari eta mundua gizatarrago egiteko ari dugun borrokari eusten dion indarra.

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>

José Antonio Pagola Itxaldiaren Bideoak ikusteko:
<http://iglesiadesopelana3v.blogspot.com>